

118. FITXA GIPUZKOA – Gipuzkoako Lurralde Historikoan gizarte zerbitzuen zentroetako inbertsioetarako dirulaguntzak

Nori zuzendua:

- Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki-erakundeak eta haien mendeko erakundeak.
- Erakunde publiko eta pribatuak, baldin eta haien helburuak edo xedeak lotura zuzena badu eskaera egiten den zentroan garatu beharreko jarduerarekin eta eskubide errealeen baten titularrak badira (gutxienez, erabilerakoa).
- Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeak.

Sarbide-esteka: [Egoitza Elektronikoa - Gipuzkoako Foru Aldundia](#)

Erreferentziazko araudia: [2025eko deialdia, Gipuzkoako Lurralde Historikoan gizarte zerbitzuen zentroetako inbertsioetarako dirulaguntzena](#)

Eremuak: Gizarte zerbitzuak

Zenbatekoa: 11.500.000€

Eskabideak aurkezteko epea: 2025/05/16

Laburpena

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroan sartutako zerbitzuak ematen dituzten gizarte-zerbitzuetako zentroetan eta hirugarren sektore sozialeko erakundeen egoitzetan inbertitzeko diru-laguntzak ematea da helburua.

Bi kasuetan, dirulaguntzaren xede diren proiektuetan sartutako higiezinak Gipuzkoako Lurralde Historikoan kokatu beharko dira.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Honako hauek dira deialdi hau osatzen duten laguntzak:

1. lerroa: Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki-erakundeei zuzendutako dirulaguntzak, udal eskumeneko zentro berriak sortzeko.

2. lerroa: Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki-erakundeentzako dirulaguntzak, lehendik dauden zentroak handitu, eraberritu eta/edo egokitzeko.

3. lerroa: Zentro berriak sortzeko erakunde pribatuentzako dirulaguntzak.

4. lerroa: Erakunde pribatuentzako dirulaguntzak, lehendik dauden zentroak handitu, eraberritu eta/edo egokitzeko.

5. lerroa: Hirugarren sektore sozialeko erakundeen egoitzetan egin beharreko inbertsioak.

Dirulaguntzaren xede diren jarduketek honako baldintza hauek bete beharko dituzte.

a) Zentroak eta egoitzak Gipuzkoako Lurralde Historikoan egon beharko dira.

b) Gizarte-zerbitzuen arloan indarrean dagoen araudia eta garatutako jarduerarekin lotutako araudia betetzea.

c) Proiektuek nahitaez aurreikusi beharko dute proiektuak ondoren aipatzen den araudira osorik egokitzea, aplikatzekoak diren kasuetan:

1. 40/1998 Dekretua, martxoaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen baimena, erregistroa, homologazioa eta ikuskapena arautzen dituen.
2. 41/1998 Dekretua, martxoaren 10ekoa, adinekoentzako etxeetako gizarte-zerbitzuei buruzkoa.
3. 202/2000 Dekretua, urriaren 17koa, mendekotasuna duten adineko pertsonentzako eguneko zentroei buruzkoa.
4. 68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio- eta komunikazio-sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen.
5. 125/2005 Dekretua, maiatzaren 31koa, adinekoentzako etxeetako gizarte-zerbitzuei buruzko Dekretua aldatzen duena.
6. 195/2006 Dekretua, urriaren 10ekoa, adinekoentzako etxeetako gizarte-zerbitzuei buruzko Dekretua bigarren aldiz aldatzen duena.
7. 394/2006 Foru Agindua, 2006ko ekainaren 2koa, Psikogeriatriako Unitateen baldintzak zehazten dituen.
8. 148/2007 Dekretua, irailaren 11koa, etxeko eremuan tratatu txarren biktimak diren emakumeentzako harrera-baliabideak arautzen dituen.
9. 131/2008 Dekretua, uztailaren 8koa, gizarte-babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza-harrerako baliabideak arautzen dituen.
10. 13/2016 Dekretua, otsailaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarreko Eskuhartze Integralari buruzkoa.
11. 126/2019 Dekretua, uztailaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitza-zentroena.

Horretarako, kontuan hartu beharko da Gizarte Politiketako Departamentuak egindako ikuskapenen emaitza.

Gastuetarako aldi hautagarria

Laguntza jaso nahi duten proiektuek edo jarduerak 2024an zehar hasita egon behar dute edo, bestela, 2025eko edo 2026ko ekitaldietan hasi beharko dira, eta, edonola ere, 2026ko azaroaren 30 baino lehen amaitu beharko dira.

Salbuespen gisa, aurreko ekitaldietan hasitako jarduerak diruz lagundu ahal izango dira, hori justifikatzen duten inguruabar bereziak daudenean.

Laguntzen zenbatekoa

Diru-laguntzen ehunekoak eta zenbatekoak zehazteko, honako hauek ez dira kostu hautagarriak izango:

1. Lursailak, eraikinak edo lokalak erosteko gastuak.
2. Hirigintza-azpiegiturako obren ondoriozkoak.
3. Berariaz gizarte-zerbitzuetarako ez diren espazioekin zerikusia dutenak.

Ezarritako laguntzek ez dute gaindituko proiektuaren kostu estimatuen guztizkoaren %75.

Diru-laguntzaren ehunekoa lortutako puntuazioaren eta aurrekontu-baliabideen arabera zehaztuko da.

Lerro bakoitzeko diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa ondoren adierazten dena izango da, edo eskatutako zenbatekoa, txikiagoa bada:

1. lerroa: 1.000.000 euro.
2. lerroa: 1.000.000 euro.
3. lerroa: 1.000.000 euro.
4. lerroa: 1.000.000 euro.
5. lerroa: 300.000 euro.